



EUSKALTEGIEN MAPA EAE-N HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEAREN AZALPEN KUANTITATIBOA

Antton Iñurritegi

HABE ikuskatzailatza

Helbide elektronikoa: A-Inurritegi@habe.org

Helduen alfabetatze-euskalduntzearen egoera azaltzera emateko, amaitua den azken ikasturtea hartu da oinarri, sektorearen ezaugarrietako bat baita uneoro hasi edo bukatu ahal izateko aukera eskaintzen zaionez ikasleari, ikasturtea amaitu arte ezin delako behin betiko argazkia osatu.

Hala ere, oinarri 2005-06 ikasturtea izango bada ere, beste bi ikasturteren erreferentzia historikoa ere egingo da. Alde batetik 1995-1996 ikasturtea, ikaslerik gehien izan den ikasturtea. Eta bestetik, ikaslerik gutxien izan dena, hau da, 2002-2003 ikasturtea.

1. EUSKALTEGIAK EAE-N

2003az geroztik, helduen alfabetatze eta euskalduntzerako ikastetxeek ari garelarik, euskaltegiak ez ezik, euskaltegiak eta autoikaskuntzarako zentroak aipatu behar dira. Azken hauek, euskaltegi izan gabe, beste hizkuntza batzuk irakasteaz gain, autoikaskuntzarako sistema bitartez euskara ere irakasten duten zentroak dira.

Horrela bada, 2005-06 ikasturtean, 109 euskaltegi edo zentro aritu da, honela banatzen direlarik:

- 39 euskalategi publiko (udalen jabetzakoak)
- 65 euskalategi pribatu homologatu
- 5 autoikaskuntzarako zentro

Euskaltegien kopuruak aldaketa nabarmenak izan ditu historian zehar. Ikus dezagun 1995-96 eta 2002-03 ikasturteetako egoera:

	1995-96	2002-03
udal euskalategiak	40	40
bestelako euskalategi publikoak	8	—
euskalategi homologatuak	47	65
euskalategi libreak	64	—

Beraz, alde nabarmena eman da, batez ere, 1995-96 ikasturtetik 2002-03ra bitartean, arauzko udal euskalategi izan gabeko eskaintza publikoak desagertu egin baitira (HABEk diruz ez laguntzean), eta euskalategi pribatu guztiak homologatu edo desagertu egin dira. Baina euskalategi libre horietako gehienak AEK-koak izaki, 1996an abian jarri zen irakasleen homologazio-prozesuarekin batera, euskaltegien homologazioa ere gauzatu zen, horretarako eskualde mailako egiturak sortuz, hala behar zenean.

Euskaltegien kopurua murriztu izana, bere onean ulertu ahal izateko, euskalategiok beren zerbitzua zenbat herritan eskaintzen duten erreparratu besterik ez dago.

Izan ere, EAEko 92 herritan ematen bazituzten eskolak 1995-96 ikasturtean, horiek 118 eta 121 izatera pasatu ziren hurrenez hurren 2002-03 eta 2005-06 ikasturteetan. Edo 97, 123 eta 130 herrietan eman izan dute zerbitzua aipatu ikasturteetan, uda-barnetegietako jarduerak kontuan izanda.

Era horretan, 5.000 biztanletik gorako herri bakarra geratu da helduen euskalduntzako zerbitzurik gabe 2005-06an.

Hala ere, hiriburuak dira, normala denez, euskalategi gehienek kokalekua (Gasteizen 9, Bilbon 15 eta Donostian 13), eta euskalategi hauek beste 44 herritan ere ematen dituzte eskolak.

Aipatzekoa da, ikasturte osoan barnetegi erako ikastaroak ematen dituzten hiru euskalategi badirela EAEn, (Foruan, Lazkaon eta Zornotzan), guztira une oro 250-300 ikasle biltzeko gai direnak.

2. HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEKO JARDUERA

2.1 Jardueraren antolaketa

Helduen euskalduntze eta alfabetatzea talde-irakaskuntzan soilik oinarrituta antolatu eta burutu da (euskaltegien jarduera-esparruan) 2003ra bitartean. Urte horretan, autoikaskuntzarako zentroak homologatzeaz gain, zenbait euskalategi ere, ikasle jakin batzuei, zerbitzu bera eskaintzen

Beraz, alde nabarmena eman da, batez ere, 1995-96 ikasturtetik 2002-03ra bitartean, arauzko udal euskalategi izan gabeko eskaintza publikoak desagertu egin baitira (HABEk diruz ez laguntzean), eta euskalategi pribatu guztiak homologatu edo desagertu egin dira. Baina euskalategi libre horietako gehienak AEK-koak izaki, 1996an abian jarri zen irakasleen homologazio-prozesuarekin batera, euskaltegien homologazioa ere gauzatu zen, horretarako eskualde mailako egiturak sortuz, hala behar zenean.

Helduen euskalduntze eta alfabetatzea talde-irakaskuntzan soilik oinarrituta antolatu eta burutu da (euskaltegien jarduera-esparruan) 2003ra bitartean. Urte horretan, autoikaskuntzarako zentroak homologatzeaz gain, zenbait euskaltegi ere, ikasle jakin batzuei, zerbitzu bera eskaintzen hasten dira. Ikas- edo irakas-sistema hau ugalduz doa, 2005-06 ikasturtean jarduera osoaren % 9 inguru izan delarik.

hasten dira. Ikas- edo irakas-sistema hau ugalduz doa, 2005-06 ikasturtean jarduera osoaren % 9 inguru izan delarik.

Bestalde, aurrez-aurreko irakaskuntzan, urtetik urtera urrituz joan da ikastaroen trinkotasuna (asteko ordu-kopurua), eta autoikaskuntza-bidezko ikastaroen arrakasta ere urrats bat gehiago izan daiteke bide horretan.

Taula honetan argi ikusten da urteotan gertatu den bilakaera:

	1995-96	2002-03	2005-06
asteen 0-6 ordu	3,65%	19,64%	23,86%
asteen 7-9 ordu	8,32%	10,11%	9,99%
asteen 10-19 ordu	56,99%	42,28%	38,86%
asteen >19 ordu	9,51%	9,74%	8,49%
uda-ikastaroa	10,99%	9,50%	10,16%
uda-barnetegia	6,78%	4,75%	4,65%
neguko barnetegia	3,76%	3,97%	3,98%
Taldeak guztira	4.278	3.472	3.592

Alde batetik, ikasle eta talde erdiak asteen 10 orduko ikastaroetan baziharduten 1995-96 ikasturtean, ia herenera izatera jaitsi dira 2005-06an. Eta tarte berean, asteen 10 ordutik beherako jarduera, % 12ra ozta-ozta heltzen zena, % 33 izatera pasatu da.

Honetarako hainbat arrazoi aipa badaiteke ere (lan-egoeraren alda-keta, jendeak geroz eta denbora gutxiago duela zernahitarako,...), bada sektorearen beraren bilakaeran datu aipagarri bat: euskaltegietan programa orokorrak nagusi (edo ia erabatekoak) ziren garaitik, ikasleen beharrei zuzendutako ikastaroak antolatu eta ematera pasatu da. Hor kokatu behar dira enpresetako taldeak, administrazio ezberdinetako langileen taldeak, guraso-taldeak, etorkinentzako harrera-ikastaroak, dendarienezako eta ostalaritzako langileentzako ikastaroak, eta abar. Eta ikastaro hauek, gehienetan, asteen 6 ordutik beherakoak izan ohi dira. 2005-06 ikasturtean EAEko euskaltegien jarduera osoaren herena izatera iritsi dira era honetako kolektiboei zuzendutako ikastaroak.

2.2 Euskaltegien jarduera kopurutan

Euskaltegien jarduera kopurutan emateko unean, lau parametro erabili izan da beti: ikasleak, matrikulak, talde-orduak, eta ikasle-orduak. Ikasleen gorabeherak geroago aztertuko ditugunez, goazen beste hiruak azaltzera.

Matrikulak: ikasle-ikastaroak neurtzen dituela esan genezake; helduen alfabetatze eta euskalduntzearen antolaketa hain ikastaro ezberdinak izaki, bi ikastaro egin dituen ikasleak bi matrikula egin dituela esaten dugu, eta horrela zenbatzen.

Talde-orduak, berriz, aurrez-aurreko irakaskuntzan irakasleak ikasleei ematen dizkien saio-orduak dira.

Eta ikasle-orduak, ikasle bakoitza ikasle izan den bitartean emanda-

ko orduen batura da. Erreferentziazko azken bi ikasturteetan, ikasle bakoitzaren hasiera- eta amaiera-egunak zehazten direnez, gai honen jarraipen zehatza egin daiteke. Baina ez horrela 1995-96an, eta horregatik ez da datu hau zehazten.

	1995-96	2002-03	2005-06
Matrikulak	57.835	35.035	48.581
Ikasle-orduak		8.631.502	9.756.187
Talde-orduak	1.097.756	804.212	806.283

Kontuan izan behar da, bestalde, 2005-06 ikasturtean 500.000 ikasle-ordu inguru autoikaskuntzako jarduerari dagozkiola, hau da, talde-ordurik gabe.

3. IKASLEAK: KOPURUAK ETA EZAUGARRIAK

EAEko euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentroetan ikasten duten ikasle-keen kopuruak gorabehera bat baino gehiago izan du urteetan zehar. Horrela, HABEk euskaltegien datuak prozesatzen dituenetik (1985-86 ikasturtetik), 1995-96 ikasturtea izan da ikaslerik gehien ezagutu duena: 44.855 ikasle.

Ikasturte horretatik aurrera, ikasle-jaitsiera gertatu zen 2002-03 ikasturtera arte, bertan 33.168 ikasle izan zirelarik. Hortik aurrera, berriro ere, helduen alfabetatze eta euskalduntzearen gorakako joera nabaria izan da, ikasle-kopurua ikasturtero 2.000 handituz (35.337 ikasle 2003-04an, 37.862 2004-05ean eta 39.530 2005-06an).

Ikasle-kopuruak aldaketak izan baditu, are handiagoa izan da hauen tipologian gertatu dena, eta goian aipatu den kolektibo bereziei zuzendutako irakaskuntzarekin lotuta izan den aldaketa bereziki.

3.1 Adina

ikasturtea	ikasleak	batez besteko urteak	Ikasleak adin-tarteka (%kotan adierazita)					
			16-20	21-25	26-30	31-35	36-45	>45
1995-96	44.855	28	22,65	22,51	19,24	14,04	17,51	4,04
2002-03	33.168	33	11,74	16,59	17,11	15,41	26,96	12,19
2005-06	39.530	34	10,98	12,33	16,17	15,76	28,07	16,69

Nabarmena da nola mugitu den ikasleriaren adina, 21 urtez beherakoak urritu ahala, 36 urtetik gorakoak ugalduz. 16-20 urte bitarteko ikasle-multzoari erreparatzen badiogu, argi azaltzen da EAEEn adin horretako gazteen euskararen ezagutza-mailan izan den jauzia. Aldera ditzagun 1995-96 ikasturtean eta 2005-06an euskaltegietan aritu diren adin horretako ikasle-keen euskara-maila (ehunekotan adierazita):

Euskaltegietan programa orokorrak nagusi (edo ia erabatekoak) ziren garaitik, ikasle-keen beharrei zuzendutako ikastaroak antolatuta eta ematera pasatu da. Hor kokatu behar dira enpresetako taldeak, administrazio ezberdinetako langile-keen taldeak, guraso-taldeak, etorkinentzako harrera-ikastaroak, dendarientzako eta ostalaritzako langileentzako ikastaroak, eta abar. Eta ikastaro hauek, gehienetan, astean 6 ordutik beherakoak izan ohi dira. 2005-06 ikasturtean EAEko euskaltegien jarduera osoaren herena izatera iritsi dira era honetako kolektibo-ekin zuzendutako ikastaroak.

EAEko euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentroetan ikasten duten ikasleen kopuruak gorabehera bat baino gehiago izan du urteetan zehar. Horrela, HABEk euskaltegien datuak prozesatzen dituenetik (1985-86 ikasturtetik), 1995-96 ikasturtea izan da ikaslerik gehien ezagutu duena: 44.855 ikasle.

	1995-96	2005-06
euskalduntzeko 1. maila	73,8	28,86
euskalduntzeko 2. maila	13,1	19,51
euskalduntzeko 3. maila	3,79	17,27
EGA lortzeko ikastaroetan	7,87	32,4
alfabetatzen	1,44	1,96

3.2 Ikasleen ikasketa-maila

Adina eta kolektiboei zuzendutako irakaskuntza areagotu izanak, ikasleen formazio-mailan ere izan du isla. Ikus taula:

	1995-96	2005-06
Lizentziatua	21,58	29,47%
Diplomatua	15,12%	22,19%
UBI edo LH	36,71%	24,44%
Eskola graduatua	22,52%	16,24%
Beste	4,06%	7,66%

3.3 Ikasleen lanbidea

Are gehiago nabari da aldaketa hau ikasleen lanbideari begiratzen badiogu. Taulan ikusten denez, ia erdira etorri da lanbidez ikasle direnen kopurua, eta nabarmen igo funtzionarioena.

	1995-96	2005-06
Ikasleak	31,30%	17,48%
Irakasleak	11,68%	12,14%
Funtzionarioak	8,48%	20,26%
Lanbide liberalak	3,37%	3,97%
Teknikoak	3,50%	8,15%
Lanbide espezialduak	13,95%	12,88%
Espezialdu gabeak	4,78%	3,18%
Etxekoandreak	3,50%	4,01%
Lanik egin gabeak	0,28%	0,71%
Besterik	19,15%	17,23%

3.4 Ikasleen sexua

Ikaslearen tipologia aztertzerakoan, hau da, seguruenik, aldaketarik gutxien izan duen ezaugarria. Izan ere, emakumeak beti nagusi izan badira, areagotuz joan da nagusitasun hori, eta 1995-96 ikasturtean % 64 izatetik, 2005-06an % 69 izateraino heldu dira.

3.5 Ikasleen euskara-maila

Ikasle gazteenei buruz aritzean, horien euskara-mailari buruzko datu bat eman badugu ere, hemen ikasle guztien ikasturte-hasierako mailari erreparatuko diogu, eta horretan gertatu den bilakaera azalduko dugu (aldaketa uste baino eskasagoa izan bada ere):

	1995-96	2005-06
Euskalduntzearen 1 maila	69,33%	53,75%
Euskalduntzearen 2. maila	16,31%	20,39%
Euskalduntzearen 3. maila	8,22%	20,03%
Alfabetatzen	6,14%	5,56%
Laugarren maila	0,00%	0,28%

Ikusten denez, euskaltegien mundura datorren ikasleriaren erdia pasa, oraindik ere, euskalduntzearen hastapenetan ari da.

Datu honetan sakondu nahian, 2005-06 ikasturtean lehen aldiz euskaltegiratu diren ikasleen azterketa xume bat egingo dugu, argigarri gerta daitekeelakoan.

Oro har, ikasle hasiberri guzti hauek honela bana ditzakegu, euskara-mailari dagokionean:

Euskalduntzearen 1 maila	60,73%
Euskalduntzearen 2. maila	10,29%
Euskalduntzearen 3. maila	20,63%
Alfabetatzen	7,98%
Laugarren maila	0,36%

Lehendik EAEko euskaltegi batean inoiz ibili gabeko 11.652 ikasle azaltzen zaizkigu 2005-06 ikasturtean, horietatik 9.761 Euskal Herrian bertan jaiotakoak direlarik. 2.000 inguru dira, beraz, Euskal Herrikoak. Euskal Herrian jaiotako ikasle-kopuru horren datu batzuk (adina eta hezkuntza-eredua) emango ditugu jarraian:

Adina					
16-20	21-25	26-30	31-35	36-45	>45
3.202	2.026	1.787	1.343	1.949	1.339
%27,49	%17,40	%15,34	%11,53	%16,74	%11,50

Hezkuntza-eredua:

A erduan: %42,84

B erduan: %9,30

D erduan: %27,01

Beste: %20,85

Nabarmena da nola mugitu den ikasleriaren adina, 21 urtez beherakoak urritu ahala, 36 urtetik gorakoak ugalduz. 16-20 urte bitarteko ikasle-multzoari erreparatzen badiogu, argi azaltzen da EAEen adin horretako gazteen euskararen ezagutza-mailan izan den jautzia.

Lehendik EAEko euskaltegi batean inoiz ibili gabeko 11.652 ikasle azaltzen zaizkigu 2005-06 ikasturtean, horietatik 9.761 Euskal Herrian bertan jaioak direlarik. 2.000 inguru dira, beraz, Euskal Herritik at jaiotakoak. Euskal Herrian jaiotako ikasle-kopuru horren datu batzuk (adina eta hezkuntza-eredua) emango ditugu jarraian.

4. IRAKASLEAK: KOPURUAK ETA EZAUGARRIAK

EAEko helduen euskalduntze-alfabetatze sektorea normalizatuz joan den neurrian, eta euskaltegien homologazioa ere burututa (irakasleen gaitze-prozesua barne), euskaltegietan diharduen irakasleria ere neurri batean egonkortuta dagoela esan daiteke. Ez da urtero irakasle berrien premia handia duen sektorea.

Bada sektorean zenbait irakasle, zuzenean eskolak eman gabe, eskolaren inguruko lanetan dihardutenak: materialgintza, antolaketa, ... Azterketa honetan eskolak eman dituztenak bakarrik hartuko ditut kontuan, ez baitugu gainerakoen lana eskuratu eta kuantifikatzeko aukerarik.

Sektoreko lanak (ikasle eta taldeak) behera egin duten neurrian, irakasle gutxiago behar izan dituzte euskaltegiek, eta horien murrizte nabarmena dago 1995-96 ikasturtetik 2002-03ra bitartean.

Irakasleen adinari erreparatuz, oraindik ere nahikoa gaztea dela ikusten da, heren bat 40 urtetik beherakoa baita.

ikasturtea	Irakasleak	batez besteko urteak	Irakasleak adin-tarteka (%kotan)					
		<30	30-35	36-40	41-45	46-50	>51	
1995-96	2.039	32	54,49	30,06	8,97	2,60	2,40	1,47
2002-03	1.423	36	23,68	25,79	27,90	13,63	4,36	4,64
2005-06	1.523	38	25,48	17,27	24,69	19,04	8,67	4,86

Irakasleen ikasketa-formazioari begiratuta, honako bilakaera azaltzen zaigu:

	1995-96	2002-03	2005-06
lizentziatuak	42,86%	55,55%	57,61%
maisutxadunak	22,02%	17,92%	18,19%
beste diplomatuak	9,81%	14,51%	13,62%
gaituak	3,97%	12,02%	10,58%
bestelakorik	21,33%	0,00%	0,00%

Aipatzekoa da euskaltegi libreak zeuden garaian homologazio-bal-dintzak bete gabe eskolak ematen ziharduten irakasleen gaia bideratua dagoela 2002-03 ikasturterako, bai ikasketak amaituz bai 1996an abian jarri zen gaitze-prozesuaren bitartez.

Bada datu bat urteetan zehar aldaketa handirik ez duena, hau da, emakume eta gizonezkoen arteko aldea. Izan ere, emakumeak baitira irakasleen artean nagusi, 1995-96an % 67,48, eta 2005-06 ikasturtean % 69,45 direlarik.

Sektoreko irakasleria zenbatean egonkortu den ikusteko, aski da ikasturte bakoitzean eskolak ematen aritu diren irakasleen eskarmentuari erreparatzea, bai aldeaz aurretik eskolak ematen aritutako ikasturteei eta bai horietan emandako eskolordu-kopuruari dagokionean:

	1995-96	2002-03	2005-06
Aurrez eskolak emandako ikasturteak (batez beste)	4,93	9,70	10,27
Aurrez emandako eskola-orduak (batez beste)	3.234	6.380	7.033

Beraz, esan daiteke sektoreko irakaslea sasoiko bada ere (batez beste 38 urte), aski eskarmentu baduela, baita formazio akademikoa ere, bere lana egoki burutu ahal izateko.■

EAEko helduen euskalduntze-alfabetatze sektorea normalizatuz joan den neurrian, eta euskaltegien homologazioa ere burututa (irakasleen gaitze-prozesua barne), euskaltegietan diharduen irakasleria ere neurri batean egonkortuta dagoela esan daiteke. Ez da urtero irakasle berrien premia handia duen sektorea.